

7/2021 AKTA
NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK
URRIAREN 19AN EGINDAKO BILERA

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA:

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn., Azkoiengo alkatea

1. LEHENDAKARIORDEA:

Mario Fabo Calero jn., Martzillako alkatea

2. LEHENDAKARIORDEA:

Ander Oroz Casimiro jn., Antsoaingo alkatea

BATZORDEKIDEAK:

Oihan Mendo Goñi jn., Garesko alkatea

Aitor Larraza Carrera jn., Iruztungo alkatea

Jesús Esparza Iriarte jn., Kasedako alkatea

M^a Carmen Segura Moreno and., Alesbesko alkatea

Jesús María Arrizubieta Astiz jn., Tafallako alkatea

Óscar Bea Trincado jn., Cintruénigoko alkatea

David Álvarez Yanguas jn., Castejongo alkatea.

Enrique Maya Miranda jn., Iruñeko alkatea.

Alejandro Toquero Gil jn., Tuterako alkatea.

Manuel Romero Pardo jn., Aranguren Ibarreko alkatea

Mikel Landabere Villanueva jn., Aurizberriko Kontzejuko burua

Cristina Recalde Vallejo and., Artikako Kontzejuko burua

Sabina García Olmeda and., Izarbeibarko Mankomunitateko lehendakaria

Fernando Ferrer Molina jn., Erriberako Mankomunitateko lehendakaria

Esther Lacasta Pérez-Illzarbe and., Basaburuako alkatea

Ángel Martín Unzué Ayanz jn., Agoizko Alkatea

David Oroz Alonso jn., Urdiaingo alkatea

Ezin etorria adierazi dute:

Pedro José Soto Eguren jn., Gesalazko alkatea.

Mikel Zabaleta Aramendía jn., Leitzako alkatea

Itziar Semberoz Garralda and., Espartza Zaraitzuko alkatea

Yolanda González García and., Vianako alkatea.

IDAZKARIA:

Berta Enrique Cornago and.

Iruñean, bi mila eta hogeita bateko urriaren hemeretziaren, arratsaldeko bostetan, bigarren deialdian, aldamenean adierazitakoak bildu dira Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioaren egoitzan (Tutera kalea, 20, 3. solairua, Iruña), Batzorde Betearazleko kideak baitira. Bilkuraren buru Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn. aritu da, eta idazkari, berriz, Berta Enrique Cornago and. Hona hemen

GAI-ZERRENDA

1. Aurreko bilkuraren aktaren berri ematea eta hura onestea.
2. Batzorde eta Kontseilu sektorialeko buruzko informazioa.
3. Batzorde eta Kontseilu sektorialetako ordezkariak izendatzea.
4. Garapen Lankidetzarako jarduketak 2021ean.
5. NUKFren lerro estrategikoak egiteko jarduketekin jarraitzea.
6. Batzorde Betearazlearen azaroko saioa beste egun batera aldatzea.
7. Lehendakariaren informazioa.
8. Galde-eskeak.

1. PUNTUA- Irailaren 14ko ohiko bilkuraren aktaren berri ematea eta hura onestea.

Aurreko bilkuraren aktaren kopia igorrita deialdiarekin batera, aldez aurretik irakurri beharrik gabe, lehendakariak galdetu du Batzorde Betearazleko inork oharririk duen haren inguruan.

Alvarez jaunak, Castejongo alkateak, zuzenketa bat proposatu du 5. puntuari berak esandako hitzetan. Bertan, erabakiaren bigarren zatia, 0-3ko talde bat eratzearen, alde zegoela argi adieraztea nahi du.

Inork ez du oharririk egin; horrenbestez,

ERABAKI DA:

2021eko irailaren 14an egin bilkuraren akta onestea.

2. PUNTUA.- Batzorde eta Kontseilu Sektorialei buruzko informazioa.

Honako Batzorde eta Kontseiluen berri eman dute:

- **Nafarroako Adingabearen Kontseilua**, 2021/09/23. Haurrei eta nerabeei arreta emateko Foru Legearen aurreproiektuari aldeko txostena eman zioten eta aurreproiektuak edukitako parte-hartze handia nabarmendu zuten.
- **Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseilua (osoko bilkura)**, 2021/09/24. Haurrei arreta emateko Foru Legearen aurreproiektuari buruzko txostena eman zuten.
- **Nafarroako Desgaitasun Kontseilua**, 2021/09/24. Haurrei arreta emateko Foru Legearen aurreproiektuari eta desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartelak arautuko dituen Foru Agindu bati buruzko txostena eman zuten. Halaber, Next Generation funtsekin finantzatzeko zenbait proiekturen berri eman zuten.
- **Erroldatze Kontseiluaren Probintzia Atala (EIN)**, 2021/09/28. Udalek igorritako ofiziozko bajak izapidetu zituzten eta populazioaren zifra ofizialen berri eman zuten zenbait udalek helarazitako alegazioen berri emanik ere. Halaber, udal horien kudeaketa ona nabarmendu zuten.
- **Lurralde Politikarako Gizarte Kontseilua**, 2021/09/29. Saio berezia egin zuten Nafarroako Lurralde Estrategia berria jorratzeko. Egungo estrategiaren analisiaren berri eman zuten eta antzemandako arazoak adierazi, batik bat, strategiaren izaera ez loteslearen eraginez sortuak. Despopulazioaren kontra borrokatzen lagunduko duen eredu bat landu behar dela azpimarratu zuten.
- **NILSAko Administrazio Kontseilua**, 2021/10/05. 2021eko ekitaldiaren itxieraren eta 2022rako jarduketara programaren aurreproiektuaren berri eman zuten, bolumena kontuan hartuta obra garrantzitsuenak azpimarratuta. Toki Jasangarritasuneko NILSA katedra kudeatzeko hitzarmen bat izenpetzearen berri eman zuten.
- **Nafarroako Euskararen Kontseilua**, 2021/10/08. Kontseilu honen ordezkariak adierazitakoaren arabera, 2021eko bukaeran abian egongo den Euskararen Plan Estrategikoaren izapidetzea zertan den azaldu zuten.

- **Toki Araubideko Foru Batzardea**, 2021/10/13. Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen Foru Dekretuari, desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartelak egiteari buruzko Foru Agindu bati eta Haurrei arreta emateko Foru Legearen aurreproiektuari txostena eman zitzaion. Toki ordezkariak honakoak eskatu zituzten: aurrez aurreko saioei berriro ekitea, idazkaritza eta kontu-hartzailetzako langileak kontratatzeke zerrendak egitea, 2022ko toki inbertsioen planari buruzko informazioa eta JEZaren hobariari dagokion ordaintetari buruzkoa. Azken horri dagokionez, lehenbailehen egiteko beharra adierazi zuten ordezkariak bai eta Ogasunari neurriak zein enpresei eragiten dien jakiteko beharrezkoa den informazioa helaraz dezan eskatzeko beharra ere.
- **Nafarroako Gardentasun Kontseilua**, 2021/10/18. Eskuragarritasunaren alorrean aurkeztutako erreklamazioak ebatzi ziren.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

3. PUNTUA.- Batzarde eta Kontseilu Sektorialeko ordezkariak izendatzea.

Lehendakariak azaldu du Nafarroako Kirol Jokoen edizio berrirako udal teknikariak izendatzeko eskatu diotela NUKFri. Adierazi dutenez, orain arte, NUKFk izendatutako Tafallako kirol teknikariak parte hartzen zuten eta, aurreko urtean, San Adriango Udaleko kirol teknikariak ere parte hartu zuten.

Oraingoan ere, bi teknikari horien parte-hartzea proposatu behar zuten Federazioak baina Tafallako teknikariak aurten nahiago duela ez parte hartzea adierazi du. Hori dela eta, bere ordezkari bat izendatzea eta Raquel Astudillo Mandorran San Adriango kirol teknikaria mantentzea proposatu da.

Batzorde Betearazleko kideei haien entitateetako teknikariren bat proposatzeko aukera eman zaie. Bestela, udal teknikariek harremanetan jarri eta haiek pertsona bat proposatzeko eskatuko die Federazioak.

Horretaz gain, beste izendapen eskaera baten berri eman du lehendakariak Helmugetan Jasangarritasun Turistikoaren Lurralde Plana egiteko Aholku Komiterako. Komite horretan, estatuko administrazioko bi ordezkari, Nafarroako Gobernuko beste bik eta Federazioko batek hartzen dute parte. Horretarako, Berta Enrique Cornago andrea, Federazioko idazkari nagusia izendatzea proposatu da.

Bestalde, Federazioari Desgaitasunari buruzko Foru Lege berria egiteko osatutako lantaldean parte hartzeko eskaera egin diotela jakinarazi dute eta kideren batek interesa badu hala adieraztea eskatu diete bertaratutakoei. Inork interesik ez badu, lehendakariak edo NUKFko teknikari batek parte hartuko duela jakinarazi dute.

ERABAKI DA:

Izendapena adierazitako moduan onestea.

4. PUNTUA.- Garapen Lankidetzarako jarduketak 2021ean

Lehendakariak azaldu duenez, onespenera jarriko den proposamena Garapen Lankidetzako Batzordean aukeztu zuten, dagoeneko, urriaren 13an urteko deialdiaren oinarriek ezartzen dutenari jarraiki.

Ondoren, Echaide jaunari, Garapen Lankidetzarako Funtzaren teknikari ardurari, hitza eman dio proposamenak barne hartzen dituen jarduketak zehatzago azal ditzan. Horrek, lehendabizi, urteko deialdiaren ebazpen-proposamenaren berri eman du, aurtengo garapen funtsak egiten duen ekarpena, aurkeztutako proiektuak eta hautatutakoak berrikusita. Puntu gehien lortu duten zortzi proiektuak azaldu ditu, beraz, finantzatu daitezkeenak. Halaber, Asociación de Trabajadores y Técnicos sin Fronteras elkarteak aurkeztutako proiektua ere azaldu du Saharar Ordezkaritzarekin izenpetutako hitzarmenaren barruan finantziatzea lortzen duena. Jakinarazi du bestalde, “Madre Coraje” GGKEak aurkeztutako proiektuaren zati bat ere finantzatzeko aukera dagoela eta GGKEari bi aukera ematea proposatu du: batetik, proiektu osoa mantentzea funtsak estaldu ezin duen kopurua jartzeko konpromisoa hartzen badu edo, bestetik, proiektua birformulatzea eta soberan gelditu diren 15.000 euroko kopuruari doitzea.

Teknikariak azaldu duenaren arabera, lankidetzarako funtsak toki entitateen diru-sarrerara berriak jasoz gero, puntuen arabera zerrendako hurrengo proiektuak hautatuko dira. Bestalde, 2022ko lehenengo hiruhilekoan deialdi berria egingo da.

Era berean, teknikariak beste proposamen bat helarazi dio Batzordeari: 2022an, orain arteko baldintza berdintsuekin, urteko hitzarmen berria izenpetzea Nafarroako GGKEen Koordinakundearekin.

Azkenik, lankidetzaren arloan egingo den hirugarren jarduketari heldu dio, larrialdiko laguntzarekin lotuta. Azaldu duenez, NUKFren aurrekontuan kontzeptu horrekin ageri diren 10.000 euroak honako bi eskaerak finantzatzeko erabiltzea da proposamena: Alianza para la Solidaridad erakundearen eskaera 4.240 eurokoa eta UNRWA erakundearena gainontzeko zenbatekoa erabilita.

Gaia Batzorde Betearazlearen onespenera jarrita,

Alvarez jaunak, Castejongo alkateak, proposatu du beste urte batean larrialdiko laguntza hirugarren munduko txertaketara bideratzeko aukera aztertzeko.

Echaide jaunak, NUKFko teknikariak, adierazi duenez GGKEekin harremanetan jarriko dira hori nola bideratu aztertzeko. Era berean, erakunde eskudunei jarduera hori egin dezaten eskatzeko aukera adierazi da.

ERABAKI DA:

Lankidetzari dagozkion 2021-2022 epealdirako proposatutako jarduketak onestea ondorengo baldintzetan:

LEHENBIZIKOA. Urteko deialdiari dagokionez, puntu gehien lortu dituzten 8 proiektuak finantzatzea baita Asociación de Trabajadores y Técnicos sin Fronteras entitateak aurkeztutakoa ere Saharar Ordezkaritzarekin izenpetutako hitzarmenaren barruan. Halaber, Madre Coraje GGKEaren proiektua ere finantzatzea adierazitako baldintzetan. Bestalde, toki entitateen diru-sarrera berriak jasoz gero, beste proiektu bat edo batzuk finantzatzea lortutako puntuen arabera ordenean hautatuz; eta 2022ko lehen hiruhilekoan urteko deialdi berria egitea. Honakoak dira finantzatuko diren proiektuak:

- * “Arzitaou emakumeen elkartearen ekoizpen gaitasunak handitzea eta dibertsifikatzea hegazi-hazkuntza eta abeltzaintza sartuz. Safo Chadawa, Niger”.
GKEa: Infancia sin Fronteras - ISF Navarra elkarte
Finantziak: 23.954,45
- * “Mauritanian emakumeen mutilazioa gutxitzea eta bertan behera uztea informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien bidez”
GKEa: Manos Unidas
Finantziak: 24.000,00
- * “Ur seguruaren, saneamenduaren eta higiearen eskuragarritasuna hobetzea, Burundin, COVID-19ren testuinguruan, ebola birusa kutsatzeko arrisku-eremuetako biztanle kalteberenen artean kolera-agerraldiari aurrea hartzeko eta erantzuna emateko”.
GKEa: UNICEF – Nafarroako Batzordea
Finantziak: 24.000,00
- * “Lehen hezkuntzako gaitasunak sendotzen Fonds Parisien eskolan”
GKEa: Fundación VIC
Finantziak: 24.000,00
- * “Lubero departamentuko Kayna udalerriko Kasando Institutuko ikasle, irakasle eta familientzako hezkuntza-ingurunea eta azpiegitura osasungarriak sortzea uraren, saneamenduaren eta higiearen arloan. (Kongoko Errepublika Demokratikoa)”
GKEa: Fundación Internacional de Solidaridad Compañía de María (FISC)
Finantziak: 24.000,00
- * “Ur hornidura Turkana North-eko Riokomor komunitatearentzat; Kenia”.
GKEa: Fundación Rode
Finantziak: 23.998,45

- * “Nacuxako osasun zentroko ama-haurrentzako pabiloia ekipatzea”
GKEa: Summa Humanitate fundazioa
Finantziazioa: 23.225,00

- * “Ura eta saneamendurako eskubidea hobetzen laguntzea Mandou eskualdeko Toki, KemMata eta Massa landa komunitateetan. Chad”
GKEa: Solidaridad, Educación, Desarrollo (SED)
Finantziazioa: 24.000,00

- * “Ura, elikagaiak eta saneamendua eskuratzeko logistika saharar errefuxiatuentzat”
GKEa: Asociación de Trabajadores y Técnicos sin Fronteras (ATTSF)
Finantziazioa: 24.000,00

BIGARRENA. 2022an urteko hitzarmen berria izenpetzea, baldintza beretsuekin, Nafarroako GGKEen Koordinakundearekin.

HIRUGARRENA. NUKFren larrialdiko laguntzarako partidaren kargura honakoak finantzatzea: Alianza para la Solidaridad erakundearen eskaera, 4.240 eurokoa, bai eta UNRWA erakundearena ere gainontzeko 5.760 euroekin.

5. PUNTUA.- NUKFren lerro estrategikoak egiteko jarduketekin jarraitzea.

Lehendakariak jakinarazi duenez, pandemiaren ondorioz NUKFren lerro estrategikoak egiteko prozesua eten egin zen. Idazkari nagusiari hitza eman dio zehaztasunak eman ditzan. Horrek adierazi duenez, 2020ko otsaileko Batzorde Beteazlean lerro estrategikoak lantzeko taldea sortu zen eta bertan parte hartzen duten kideen zerrenda berrikusi du. Halaber, azaldu du otsailaren 25ean talde horrek bilkura egin zuela. Bilera horretan, aurreko legealdian egindako lanari heldu zioten eta prozesu parte-hartzaile bat proposatu, martxoaren 10eko Batzorde Beterazleak onetsi zuena.

Orain, lanekin jarraitzeko asmoa dago eta, jakinarazi duenez, ahal bezain laster taldea bilera batera deituko dute.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

6. PUNTUA.- Batzorde Beteazlearen azaroko saioa beste egun batera aldatzea.

Lehendakariak hurrengo Batzorde Beteazlea dataz aldatzeko proposamena egin du azaroaren 9an izan beharrean 23an izateko; saio horretan aurrez aurre izango den Batzar Nagusia deitu ahal izateko.

Aurreratatu duenez, Batzar Nagusia abenduaren 17rako aurreikusia dago.

ERABAKI DA:

Batzorde Betearazlearen hurrengo saioa dataz aldatzea eta azaroaren 23an egitea.

7. PUNTUA.- Lehendakariaren informazioa.

Lehendakariak honako gai hauek aipatu ditu:

- Nafarroako Foru Komunitateko Sustapen Ekonomikorako Eremuak arautzen dituen Foru Legearen Aurreproiektua. Jakinarazi duenez, aurreproiektuaren testua bidali diote Federazioari laster Toki Araubideko Foru Batzordera eramango baita. Idazkari nagusiak adierazi du eremu ekonomiko horietarako proiektuak aurreikusten duen finantziazio tresnari dagozkion eskumenei eta legezketasunari lotuta, arazoak ikusi direla ikuspuntu teknikotik; izan ere, finantziazio tresna horren onespina eta kudeaketa udalei egozten baitzaie. Aurreproiektua jendaurrean ikusgai egoteko epea amaitu dela adierazi du idazkariak baina Federazioak ez duela oraindik bilerarik egin dagoen departamentuarekin.

Maya jaunak, Iruñeko alkateak, azaldu du berak dakienaren arabera, eremu ekonomiko horiek merkatarien elkarrekin alternatiba gisa planteatzen direla, lankidetzaren publiko-privatua lortzeko eta eremu horretan dauden merkatari eta lokalen jabeentzako orain arteko borondatezko sarrera ziurtatzeko. Berretsi egin du eremu horiek sortzeko prozeduraren zailtasuna, oso-osorik udalengan jartzen delako ardura. Oroz jaunak, Antsoaingo alkateak, eskatu du berehala aurreproiektuaren testua Batzordeko kideei igortzeko eta Toki Araubideko Foru Batzordea bildu baino lehen, bertako kideei aurreproiektuari buruzko azterketa tekniko bat ere helaraztea eta behar diren bilerak egitea.

Unzue jauna, Agoitzeko alkatea, ere ados agertu da Oroz jaunarekin.

- Tracasarekin eta Ogasunarekin egindako bilerak. Lehendakariak jakinarazi duenez, Tracasarekin eta Ogasunarekin bilkurak egiten ari dira goi-tentsioko eta tentsio ertaineko energia-enpresei kontribuzioa eta jabari publikoaren aprobetxamendu berezia egiteko tasa kobratu ahal izateko.
- Lurralde kontribuzioan familia ugarietako hobariak aplikatzeko ordenantza. Lehendakariak adierazi duenez, Toki Ogasunari buruzko Foru Legeak aurreikusten duen salbuespen hori aplikatzeko ordenantza eredu bat landu du Federazioak.

Arrizubieta jaunak, Tafallako alkateak, horren inguruan esan du familia ugarietako tratua desberdina ekar dezakeela, bizi diren udalerrian ordenantza onartu den ala ez kontuan hartuta. Era berean adierazi du, bere ustez, mota horretako laguntzak errentaren gaineko zerga kontuan hartuta eman behar direla. Adierazi du, halaber, ez dakitela zenbat familia ugari dagoen eta horrek zer kostu ekonomiko duen udalarentzat.

- 0-3ko lantaldearen sorrera. Lehendakariak esan du lantalde horretan parte hartzeko hogeita eskaera jaso dituztela eta, laster, taldearen lehenengo bilera deituko dutela.
- Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak elizak immatrikulatutako ondasunen

zerrendari buruz igorritako informazioa. Adierazi duenez, zerrenda osatzen dutenean Parlamentuari eta NUKFri igorriko diete.

- Irailaren 17an Gizakia Helburu Fundazioarekin izandako bilera. Bertan, Federazioari laguntza eskatu zioten fundazioaren estrategia zabaltzeko, ematen duten zerbitzua biztanleria jakin bateko udalerrietara hurbiltzen saiatzen ari direlako.
- Irailaren 22an Ecoembes erakundearekin izandako bilera. Bertan, toki entitateetan birziklatzen diren ontzien inguruko informazioa eman zioten Federazioari. Halaber, FEMPeK bere web-orrian argitaratu duen materia organikoa biltzeko ordenantza ereduaren eta AIR-E tresnaren berri eman zioten NUKFri.
- Irailaren 27an izandako Covid alorreko koordinazio-bilera, murrizketak malgutzeko neurriak baloratzeko.
- Irailaren 29an Munidigital enpresarekin izandako bilera, eskaintzen duten plataformaren berri emateko.
- Estatuko Merkataritza alorreko Idazkariarekin izandako bilera, datozen urteetarako toki entitateentzako laguntza-lerroen berri emateko.
- Urriaren 6an Parlamentuan izandako ponentzia, Klima Aldaketari buruzko Foru Legearen Aurreproiektuari dagokionez NUKFk duen iritzia adierazteko.
- Urriaren 8an izandako Geserlocaleko Kontseilua eta Batzorde Nagusia, Geserlocaleko estatutuak aldatzeko eta erakunde instrumental bihurtzea ahalbidetzeko, NUKFko Batzorde Betearazleak erabakitakoari jarraiki.
- Urriaren 15ean Parlamentuko Kulturako Batzordean egindako agerraldia, udal esparruan Nafarroako kultur kudeaketari buruz Federazioaren ikuspuntua adierazteko.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

8. PUNTUA.- Galde-eskeak

Arrizubieta jaunak, Tafallako alkateak, hartu du hitza Covid pandemiaren ondoren oreka ekonomikoa mantentzeko kirol arloko enpresa kudeatzaileei konpentsatu behar zaizkion gastuen inguruan jarraibiderik dagoen galdetzeko.

Lehendakariak adierazi du berak ere mota horretako konpentsazio-eskaera bati aurre egin behar izan diola. Hala adierazi du ere Bea jaunak, Cintruenigoko alkateak, eta defizit guztia beregain hartu ez dutenez, enpresak Nafarroako Administrazio Auzitegian helegitea jarri duela azaldu du.

Alvarez jaunak, Castejongo alkateak, enpresa horiei azken urteetako auditoretza bat egiteko gomendatu du udalek beregain hartu behar dituzten gastuak eta hartu behar ez dituztenak ikusteko.

Arrizubieta jaunak, Tafallako alkateak, Lurralde Kohesioko Departamentuak administrazio elektronikoari buruz abiatutako taldearen aurrerapausoen inguruan galdetu du. Esan duenez, bere ustez, Iruña bezala (prozedura ugari eskuragarri dituena) prozesuan aurreratuagoak doazen udalek landutako guztia partekatu beharko litzateke. Maya jaunak, Iruñeko alkateak, Arrizubieta jaunarekin ados dago eta adierazi du badakiela Animsak toki entitateetan administrazio elektronikoa ezartzeko plan bat aurkeztu diola Lurralde Kohesiorako Departamentuari baina Gobernuak oraingoz bere plana egin duela. Horrek Gobernuaren eta toki entitateen arteko hutsunea sor dezakeela esan du.

Horri loturik Batzordeak adierazi du toki entitateetan administrazio elektronikoaren ezarpena susta dezala eskatu behar zaiola Gobernuari.

Recalde andreak, Artikako Kontzejuburuak, arlo horretan kontzejuentzako babesa eta laguntza eskatu du eta esan du berak denbora daramala ezarpen elektronikoaren gaia lantzen baina ez duela lortu abian jartzea.

Arrizubieta jaunak, Tafallako alkateak, esan du aurrera egiten ez bada udal bakoitzak informatiko bat kontratatu beharko duela.

Fabo jaunak, Martzillako alkateak, galdetu du aurrerapausorik egon den inbertsioen planaren alorrean. Uste du aski dela eta Gobernuaren konpromisoa ez dela nahikoa. Esan duenez, berriro ere toki inbertsioen planik gabe geratzeko beldur da. Uste du NUKFk ez duela behar adinako presioa egin gai horretan eta Next Generation Funtsekin plana ordezkatzeko duten beldur da.

Lehendakariak esan duenez, etengabe ari dira informazioa eskatzen. Berriro ere irailean izandako bilkuran Lurralde Kohesiorako Departamentuak adierazi ziena azaldu du eta esan du, laster, informazioa igorriko diotela Federazioari.

Toquero jaunak, Tuterako alkateak, behar izatekotan hedabideetan kexa bat egin litekeela esan du.

Ferrer jaunak, Erriberako Mankomunitateko lehendakariak, esan du Kontseilariari ere informazioa eskatu diotela baina oraingoz ezer ez dagoela erantzun dietela.

Next Generation Funtsei dagokienez, lehendakariak baieztu duenez ez da Toki Inbertsioen Planaren inbertsioetarako adina funts egongo.

Maya jaunak, Iruñeko alkateak, adierazi du FEMPeK toki entitateentzako 15.000 milioiko funts bat hizpide duela baina ez dela zehazten funtsa nolakoa izango den ezta nork kudetuko duen ere. FEMPari ere informazioa eskatzeko proposatu du.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, lehendakari jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko hemezortziak eta berrogeita bost direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta lehendakariarekin sinatu dut.

LEHENDAKARIAREN ONIRITZIA,

IDAZKARIA,

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn.

Berta Enrique Cornago and.